

ANIMAZIO FILM ONENAREN
OSCARRERAKO
HAUTAGAIA

35 ZINEMALDI BAINO
GEHIAGOTARAKO HAUTATUA

20 ZINEMALDI BAINO
GEHIAGOTAN SARITUA

GRUFALOA

JULIA DONALDSON EN
BEST-SELLERREAN OINARRITUA

**10 MILIOI IKUSLETIK
GORA MUNDUAN**



3 URTETIK GORAKOENTZAT GOMENDATUA



JULIA DONALDSONEN MUNDUA



Julia Donaldson (1948) da bertsotan idatzitako *Grufaloo* ipuin sonatuaren egilea, baita haren ostean etorritako *Grufaloaren alaba* lanarena ere. Bi kontakizunotan daude oinarrituta, hain justu, dosier honetako film laburrak.

Donaldson idazlea eta antzerkigilea Londresen jaio eta hazi zen. Ahizpa zaharrena eta biak gurasoekin, amonarekin eta osaba-izebekin bizi ziren, baita Geoffrey maskotarekin ere; egiaz printze mozorrotua zen katuarekin, alegia (hori uste zuten, behinik behin, bi ahizpek, txiki-txikitatik ageri zuten irudimenaren lekuko). Julia Donaldsonen haurtzaroak bere pasioen ezagutza izan zuen ezaugarri: ametsezko pertsonaiak, kontakizunak, abestiak eta ikuskizunak. Horrek guztiak Arte Dramatikoa ikastera eramane zuten Bristolgo Unibertsitatera, eta hantxe ezagutu zuen Malcolm Donaldson, musikaz eta gitarrak maiteminduta bizi zen medikuntza-ikaslea. Ezkondu, eta elkarren bizikide dira harrezkero. Elkarrekin ezagutuko dituzte herrialdeak eta hiriak, tokiz toki inspiratutako abestiak konposatuz eta abestuz.





Lehendabiziko liburua 1993an argitaratu zuen Donaldsonek: *A Squash and a Squeeze*, BBC katerako hemezortzi urte lehenago konposatu zuen abestia, alegia. Bat-batean, haurrentzako ipuinak idazteari ekin zion: *Grufaloo* (1999) da obrarik garrantzitsuenak. Gaur egun *Grufaloo* liburuaren hamahiru milioi kopia baino gehiago saldu dituzte, 43 hizkuntzatara itzuli dute eta hainbat errekonozimendu eskuratu ditu, horien artean, Smarties Prize, Blue Peter Award edota Experian Big Three Award sariak. *Grufaloaren alaba* (2004) da aurrekari arrakastatsuen jarraipenik salduena. Guztira berrehun liburu baino gehiago dauzka argitaratuta, eta Julia Donaldsonen lanaren ezaugarri nabarmena zera da, txikiak irakurtzera bultzatzen dituela, antzerki- eta musika-irudikapenaren bidez. Ez da harritzekoa haren osteko lanak ere pantaila handirako egokitu izana: *Room on the Broom* (*¡Cómo mola tu escoba!*, 2002), *Stick Man* (*Hombre Rama*, 2008), *Grufaloaren alabaren* panpinan inspiratua, edota berrikiago kaleratutako *The Highway Rat* (2011).



LAU URTAROAK

Baso itxi eta iluneko paisaiak hainbat aldaketa izango ditu
Grufaloo filmetik *Grufaloaren alaba* lanera.

BADAKIZU LOTZEN IRUDI HAUEK
ETA IRUDIKATZEN DITUZTEN URTAROAK?



BASO METAFORIKO BAT

Filmaren hasieran, naturaren elementu batzuetan Grufaloaren gorputzeko zatiak gogorarazten dizkiguten formak ageri dira. Ondoren, saguak zati horiek deskribatuko ditu, bere harrapakariak izutzeko.

IDENTIFIKATUKO ZENUKE ZEIN DIREN?

ITXURA
GAIZTOKO
GARATXOA

ATZAPAR
IZUGARRIAK

AMORE
KOLOREKO
ARANTZA
ZORROTZAK

BETORTZ LUZEAK
ETA LABANA
MODUKO
HORTZAK

BELAUN
HEZURTSUAK



ZEINEK JATEN DU ZER

Animalia batzuek besteak jaten dituzte: sare trofikoa edo elikadura-katea deitzen diogu horri. Izaki bizidun bakoitzak dieta bat ala bestea izango du, organismoaren eta osaketaren arabera. Hala, gure ekosistema modu naturalean orekatzen da.

BADAKIZU ZER JATEN DUEN GRUFALOAK?



SAGUA •

• INTSEKTUAK



OKILA •

• ARRAINAK



AZERIA •

• SAGUA



SUGEA •

• HURRAK




KATAGORRIAK •

• KATAGORRIAK



HONTZA •



KOARTZA •

BAZENEKIEN...?

Animaliak eskuarki belarjaleak, haragijaleak edo orojaleak izan ohi dira. Gizakiok, zehazki, orojaleak gara; horrek esan nahi du denetatik jaten dugula: arraina, haragia, animaliatik eratorritako produktuak, barazkiak, zekaleak eta frutak. Nolanahi ere, hainbat pertsonak animaliarik ez kontsumitzea erabakitzen du modu askean: izan litezke barazkijaleak (ez dute jaten ez arrainik, ez haragirik), edota beganoak (ez dute jaten arrainik eta haragirik, ezta animalien deribaturik ere, hala nola esnea, gazta edota arrautzak).

TXIKIA BAINA ZUHURRA

Naturan indartsuenaren legeak agintzen omen du, baina marraskari txikiak erakutsiko digu badela indarra baino bertute ahaltsuagorik: zuhurtasuna. Hamaikatxo istorio ditugu horren lekuko: animalia txiki eta hauskorrena, piztiarik handi eta basatienari irabazten edo laguntzen. Halaxe gertatzen da, konparazio batera, lehoiaren eta saguaren fabulan.

1. ZER NOLAKOA DA «SAGU HANDI ETA MALTZURRA»? BA AL DU ZENTZURIK GRUFALOAREN ALABAK HALAKO BELDURRA IZATEAK?



2. LOTU ADJEKTIBOAK IRUDIEKIN. OSATU GORPUTZAREN ZATIA EDOTA ADIERAZTEN DUTEN EZAUGARRIA.

__ T _ LUZEA ETA EZKATATSUA
SUZKO _ E _ _ GORRI ETA HANDIAK
__ Z _ _ _ _ HARRIGARRIA
_ _ _ O _ _ IKARAGARRIAK,
ALANBREA BEZAIN SENDOAK

BAZENEKIEN...?

Grufo sortzeko, Julia Donaldsonen Txinako ipuin tradizional bat hartu zuen inspirazio-iturri. Baina, jatorrizko kontakizunean beldurrarazten zuen animalia junglako tigre bat zen. Idazleak sagua aukeratu zuen protagonista; hala, lehendabiziko zatia erantsi zuen bertsoan, azeriarekin, hontzarekin eta sugearekin.

NOLAKO EGURRA, HALAKO EZPALA (O NO...)

Bazirudien ez zuela existitu behar, eta grufaloea saguak asmatutako pertsonaia hutsa zela. Ez horixe!
Horrekin konforme ez, eta bigarren zatian, denbora baten buruan, zera ikusiko dugu, alaba bat duela!

ALDERATU BI PERTSONAIAK, ETA DESKRIBATU
ZER DESBERDINTASUN FISIKO DITUZTEN.



ZEREN BELDUR DA BAKOITZA?



AXEL SCHEFFLER

IRUDIGILEAREN ILUSTRAZIOAK

Axel Scheffler (1957) irudigileak egin ditu Julia Donaldsonen ipuin ilustratu askoren marrazkiak. *Grufaloo* eta *Grufaloaren alaba* lanetako diseinatzailea da, baina baita beste pertsonaia ospetsu batzuen ere, hala nola *Room on the Broom* eta *Stick Man* lanetakoa. Hurrek ondoen balioetsitako haur-kontakizunen ilustratzaile gisa saritu dute nazioartean.

FILMEKO ZEIN ANIMALIA DIRA HONAKO HAUEK? JAKINGO ZENUKE ESATEN EUSKARAZ, GAZTELANIAZ, INGELESEZ, FRANTSESEZ ETA ITALIERAZ?




GRUFALOAREN MASKARA

Nahi duzu grufalo-mozorroa jantzita ibili? Erraz-erraza duzu!

MARGOTU ETA EBAKI HONAKO MOZORRO HAU, ETA, ONDOREN,
ERANTSI ELASTIKO BAT EDOTA MAKILATXO BAT, EUTSI AHAL IZATEKO.

(Aholkua: inprimatu mozorroa kartoi mehe batean, gogorrago geratu dadin.)



Gogoratu kolore egokiak erabiltzeaz!

(Pista):



GRUFALOA: LIBURU BAT BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO



Nahiz eta 1999an argitaratu zuten, *Grufaloa* urte batzuk lehenagotik buruan zuen Julia Donaldsonek, bere artxiboen eta sortuntza-ideien artean. Baina, garai hartan, idazle londrestarrak nekez pentsa zezakeen mundu osoko hainbeste haurrengana iritsiko zela munstro itxurako pertsonaia hura, mugak gaindituta eta familiako kide guztien kutun bilakatuta.

The Gruffalo (*Grufaloa*) eta *The Gruffalo's Child* (*Grufaloaren alaba*) ia 50 hizkuntzataraz itzuli dituzte, hala nola gaztelaniara, katalanera eta euskarara, Bruño argitaletxearekin. Asmatutako animalia honen literatur oihartzunari eta sagu protagonistaren asmatzearekin, ipuin ospetsu hau haurrentzako liburu-denda eta liburutegi ia guztietako apaletan ageri da, Axel Scheffler irudigilearen ilustrazioekin jantzita. Sekulako masa-fenomenoa, «Irakurle txikiak, ikus-entzule handiak» leloa bete-betean justifikatzen duena.



Grufaloaren kontakizunaren ostean, produktu ugari eta askotarikoak irten dira. Gaur egun tankera guztietako artikuluak eskuratu ditzakegu: adin guztietarako liburu interaktiboak, eskola-materialak, peluxeak, jokoak, jostailuak eta gainerakoak. Nolanahi ere den, proposamenik interesgarrienak haurrei euren grufalo propioa eraikitzen bideratutakoak dira; sukaldeko errezetak; buztinezko panpinak (edo elurretakoak!); paperezko, kartoi mehezko edota oihalezko maskarak, eta bestelako hamaika ideia... Guztia ere haurrek euren sormena lantzeko, ikasteko eta indartzeko, euren ingurukoekin batera.

ETA ZU, ANIMATUKO ZARA ZEURE GRUFALOA SORTZERA?





www.ritalucafilms.com

